

LEGIONARIOA

OFF-AHOTSA

Kristo ondoren 69. urtea. II. Cohors Vasconum Civium Romanorum-en kanpalekua, Novesion. (gaur Neuss, Rhin Beherea). Vocula zenturioiaren denda.

Legionarioa dator barrura.

LEGIONARIOA

Éccum! Cáius Iúlius Beltesónis, legionárius míles secúndae cohórtis prímae centúriae...! (Caio Julio Beltesonis, legioko soldadua, bigarren kohorteko bosgarren zenturia...!)

ZENTURIOIA

Sat est. Éstne hoc túum, míles? (Ondo da, soldadu. Hau zurea al da?)

Idazki bat erakusten dio.

LEGIONARIOA

Méum est, dómne. (Bai, jauna.)

ZENTURIOIA

(Irakurtzeko zailtasunak) **“Ni, Beltesonis, Umezaharren senbe.” Scín tu lítteras per nótas scríbere póenas cápite expéndere?** (“Ni, Beltesonis, Umezaharren senbe.”Ba al dakizu mezuak klabean idazten dituenari heriotza-zigorra dagokiola?)

LEGIONARIOA

Scío. Sed háe non sunt lítterae per nótas scriptae. (Bai, zenturioia. Baina ez da klabean idatzitako mezua.)

ZENTURIOIA

Scío, míles, et crédo tíbi; et tu scís me dilígere, sed míhi ratiónem reddéndum est superióribus. (Sinesten dizut, soldadu, badakizu estimuan zaitudala, baina nagusiei azalpenak eman behar dizkiet.)

LEGIONARIOA

Significant “Ego, Beltesónis, Umézaris filius...” (Zera esan nahi du: “Ni, Beltesonis, Umezarren seme...”)

ZENTURIOIA

Et quid? (Eta?)

LEGIONARIOA

Príma vocábula sunt tántum. Germanórum bélla scriptúrus sum. Lingae Vasconum Primitiae!
(Lehendabiziko hitzak baino ez dira. Germaniako gerren historia idatzi nahi dut. Euskarazko lehenengo idazkina.)

Zenturioia hitzik gabe geratzen da.

LEGIONARIOA

Cáium Iulium Cáesarem veheménter cólo. Béllum éius Gállicum archetypum mihi est. Izugarri miresten dut Julio César. Haren Galiako gerra eredu gisa daukat.)

ZENTURIOIA

At, miser fili mi, Cáius Iúlius Cáesar latíne scripsit!
(Baina, seme gaixoa, Julio Césarrek latinez idatzi zuen!)

LEGIONARIOA

Scio equidem. (Jakina.)

ZENTURIOIA

Febriculósum te esse mihi vídeor, fructus forte ex púgnae contentióne... (Ulertzen dut, uneko beroaldia da hau, ezta? Borrokaren tentsioak eragindakoa...)

LEGIONARIOA

Non, Centúrio; iam duo mensis sunt cum in re laboro.
(Ez, zenturioia, bi hilabete eman ditut horretan.)

ZENTURIOIA

Adhúc quáttuor vocábula tántum scripsísti. (Lau hitz baino ez dituzu idatzi.)

LEGIONARIOA

Longa et ardua res est. Meae linguae vocabula barbara etiam sunt. Capienda mihi sunt singula et mansuefacienda. Quasi papiliónes venéris. (Denbora behar du. Nire hizkuntzako hitzak basatiak dira oraindik. Banan-banan ehizatu behar izaten ditut, eta, gero, otzandu. Tximeleta-ehiza bezalakoxea da.)

ZENTURIOIA

(Irribarrez) **Papiliónes venári! Spero testimónium túum probatúrum tribunálem. Et si vis consilium admíttere, língua cum futúro scríbe. Scríbe latine!** (Tximeleta-ehiza! Epaitegiak ontzat emango al du zure testigantza. Aholku bat onartzen badidazu, etorkizuna duen hizkuntza batean idatz ezazu. Idatz ezazu latinez.)

LEGIONARIOA

Et cur tu, domne, credis língvam tuam perduratúram magis quam meam? (Zenturioi, zergatik uste duzu, baina, zure hizkuntzak nireak baino gehiago iraungo duela?)

Aho zabalik begiratu dio zenturioiak eta, azkenean, barrez lehertu da. Zenturioiak algaraka alde egin du, legionarioaren irtenaldia dela-eta barrez. Hantxe utzi ditu soldadua eta idazkia.

OFF-AHOTSA

Belsetonis espioitza akusaziotik libratu bazen, litekeena da hurrengo gudaxkan hil izana. Kontua da haren «Germaniako gerren historia» ez zela argitara eman. Ondorioz, lehen idazle euskalduna izatearen ohorea Bernat D'Ettxeparerena da... Baldin eta arkeologoren batek, Rhin Behereko txokoren batean eskuizkribua lurpetik ateratzen ez badu.